

BERTSO SAIOA . DANTZALDIA . KONTZERTUAK . ASKARIA . MERKATUA . DESFILEA . LARRAIN DA

NTZA . BAZKARIA . HAURREN XOKOA . TXARANGAK . DANTZA IKUSGARRIA . BERTSO SAIOA . DANTZALDIA . KONTZERTUAK

# NAFA RROAREN eguna



2024.04.28  
BAIGORRI



ASKARIA . MERKATUA . DESFILEA . LARRAIN DANTZA . BAZKARIA . HAURREN XOKOA . TXARANGAK . DANTZA IKUSGARRIA

**BASAZIEA**  
Kultur Botozuna



Basque Government

berria



Basque Cultural Council



Euskal Irratiak



Basque Music Council



Basque Cultural Council

© 2024




Aurten ere, Basaizea elkarteak Kulturaldi berri bat prestatu du. Urte guziz, Baigorriko eskualdean, baina zabalago ere, jendea hitzordu horren beha da, Nafarroaren Egunarekin bukatzen dena. Kulturaldia (denboran Kultur Astea deitua zena), 1979 urtean sortu zen eta orain artio bizi da.

Baigorriko eskualdean orotariko euskarazko ekitaldien eskaintzea du helburutzat: ikusgarri, antzerki, kantaldi, eztabaida, gogoeta... Eskas bati erantzuteko sortu zen, garaian euskarazko sorkuntzak eta emanaldiak arrunt murriztak baitziren.

Gaur egun, eskaintza anitzez aberatsagoa da baina ez dugu begi bixtatik galtzen euskaraz bizi nahi badugu, horrelako ekitaldiak beharrezkoak direla eta oraindik lan handia gelditzen dela, euskal kulturak leku oraindik ttipiegia duelako gure lurraldean.

Beraz, gure maneran eta gure ahal xumeekin entseetzen gira Euskal Herri barnekaldean kultura biziarazten eta bazterren animatzen, euskaraz.

**BASAIZEA**  
Kultur Batasuna





# "ITURRI ZAHARRETATIK EDATEN DUT/ BETI BERRIA DEN URA" JOXEAN ARTZE

1979an lehen Nafarroaren Eguna ospatu zenetik, gauza anitz aldatu dira. Euskal kultura bera ere aldatu da eta etengabeko aldaketan da. Gure aldarrikapenak aldiz, nahiz eta denboran zehar aldatu diren, ez dira harri bihurtzen.

Kanpotik, anitzetan, gure iturnia museoko pieza bihurtu nahi dute: euskara bera zapalduz eta geroz eta lanjer handian emanez. Badirudi euskara geroz eta jende gehiagorengana heltzen dela, marketing kontuengatik edo, han eta hemenka zabaltzen diren markak euskal grafiaarekin agertzen baitina orain. Erakusleihen harro agertzeaz gain, irizpide seduzitzailea ere zabaltzen dute, iturri zaharrek isuria geldiaraziz: ura, harri bihurtuz, folklorismoan paneta gaindiezinak eraikitzeke prest daudenak.

Hizkuntza ez ezik, etxeak eta herriak hil eta folkloria bihurtzen ari dira, museo azken finean. Harrizko estatu mugiezin ederra izan daiteke oportetarako erabiltzen den etxea, urtean bizpahiru aldiz idekitzen dena eguzkia hartzeko. Paisaia eta arkitektura ere publizitate bihurtzen da, kanpora enamaten baitina salmenta produktu bihurtu daitezke.

Aldarrikapen eta nahi guzi hauek ere kontutan harturik, aurrean ere Nafarroaren Eguna antolatu dugu, apirilaren 28an, hain zuzen. Aitzinetik, Kulturaldia indartsu jinen da, apirilaren 5ean mignazio mugimenduen buruzko hitzaldiarekin hasiz. Apirilaren 11an aldiz, Baigorriko Bil Etxean Mirande, film bat egiteko zirriborroa dokumentala hedatuko da. Apirilaren 12an aldiz, Gora Euskal Herrietsak komikiaren aurkezpena izanen da, Urepeleko Amerikanoinean. Apirilaren 20an, Euskal Herria eguna ere ospatuko da, Baigorriko Bixentaenean. Nafarroaren Eguna bezperan aldiz, apirilaren 27an, Ai gure Juaneteak antzerkia izanen da Bil Etxean. Kulturaldia bukatzeko, maiatzaren 1ean Mejillon Tigre izanen dugu Arnosako Elgenian.

Gure iturri zaharretik sor dezagun guk nahi dugun aldaketa, guk nahi dugun ur emari geldigabea. Iturri zaharrek tradizioa ez dadin museoko pieza bihurtu, gure esku baita euskal kultura berritzea, tradizioa gaurko garaietara ekarri etengabeko ur isuri berrira sortuz.

**GORA NAFARROAREN EGUNA! GORA EUSKAL HERRIA!**



# MIGRAZIO MUGIMENDUAK

## MINTZALDIA

**Apirilaren 5an . 19:30**  
Izpegiko Behereko bentan

---

### MINTZALARIAK

Cimade eta Etorquinekin elkarteko kideak, abokata bat, etorkinen atarbetzaille bat eta hemen bizi diren etorkinak.

---

Etorकिनen errezebitzeko usai dugu Baigorri aldean. Bosniako gerlatik ihes egin eta hunaraino etonritakoak nola errezebituak izan ziren oroit gira. Hala ere etorkinek duten bizi dorpea adierazten dauku muga inguruko aktualitateak : hilak itsasoan, atxilotetak edo expulsioak. Nahiz imignazio lege dorpea mugatu duen Konstituzio Kontseiluak, eskuineko alderdiek ez dute amor emaiten etorkinen bizi baldintzen gogortzeko asmoarekin.

Beharrik hemendik pasatzen edo egoiten diren zonbait etorkinen oinarritzko beharnerri erantzuteko artoski lanean ari dira hainbat elkarte.





# ANCHE ET CIE

## IKUSKIZUNA


**Apirilaren 6an . 16:00**  
Bil etxean . Urririk

IPARRALDEKO  
CONSERVATOIRE  
KONTSER MAURICE  
BATORIOA RAVEL  
PAYS  
BASQUE

Anche et Cie proiektua kontserbatorioko gaitero, zahamiola, fagot ikasleak biltzen dituen kontzertua da.

Gaitaz aparte, instrumentu hauek ere pita edo anche doblea dute. Euskal enrepertorio tradizionala, Hendel, Eskoziar balada eta Irlandes dantzekin nahasiko dira kontzertu hontan.

Orotara hogei musikari pasa igoko dira eszena gainera, Baionan eta Baigorriin emanen den ikuskizunarentzat.





# MIRANDE, FILM BAT EGITEKO ZIRRIBORROA

## PROIEKZIOA & ZINE-EZTABAIDA

**Apirilaren 11an . 20:30**  
Baigorriko Biletxean . 5€



### EGILEA

Josu Martinez


### EZTABAIDA

Josu Martinez, Joseba Sarrionandia & Nora Arbellide


Baigorri eta Ortzaizeko inakunketa taldearekin antolatua

Jon Mirandek euskara goi mailako literatura unibertsala egiteko gai zela frogatu zuen XX. mendearen erdialdean. Koldo Mitxelena, Gabriel Arestik, Bernardo Atxagak, Joseba Sarrionandiak... gure egile handi guztiek aitortzen dute bere garrantzia historiko erraldoia. Ondorengo belaunaldietan utzitako arrastoa eta bere hitzen oihartzuna ere, ez da nolana hikoia.

Miranderen poemetatik abiatuta, 50 abesti baino gehiago sortu dira, Imanol, Oskorri, Antxon Valverde, Niko Etxart, Hertzainak, Zarama eta beste hainbat talderen eskutik. Euskal Herri osoko institutuetan, milaka ikaslek Miranderen izena ikasten dute gure literaturaren gailurretako bat bezala. Hala ere, Jon Mirande gai tabua da oraindik. Arantzatsua. Publiko zabalarentzat ezezaguna. Miranderi buruz esaten da arrazista zela. Pedofiloa zela. Nazia zela. Bere ideiek eta testu batzuetako gaiek deserroso sentiarazten gaituzte. Ez dakigu zer egin berarekin. Ez dakigu ez ikusiarena egin eta arbiatu behar dugun, bere garaikideek egin zuten bezala, edo erreskatatu eta aldarrikatu behar dugun, ondorengo belaunaldiak egin zuten bezala.



Denek epaitzen dute Mirande. Denek hitz egiten dute hari buruz, haren ideia eta bizimoduari buruz. Baina Jon Mirande zer da? Beharbada, idatzi zuena, besterik ez. Bere eleak. Bere literatura. Hitzak. Film honek, hitza itzuli nahi dio Miranderi. Elkarriketa egin nahi du berarekin, hil zenetik 50 urtera.



# GORA EUSKAL HERRIENTSAK

## LIBURU AURKEZPEN ILUSTRATUA

**Apirilaren 12an . 20:00**

Urepeleko Amerikanoenean . Urrinik

### EGILEA

Asisko Urmenetaren saiakera grafikoa, Dom Campistronek kolaborazioarekin.

2023.ean urteurren bikoitza beteko baita: 125 urte joanen dira Kapitolina Buztintze Larrondo uxuetarraren "Konpendio"tik, baita Jule Fernandez Zabaleta iruindar maistraren jaiotzatik ere.

Bistan da kulturaren transmisioan emakume aitzindarien zerrenda zabalagoa dela, eta komiki-album hau omenaldia ere bada kolektibo haiei; Emakume Abertzale Batza, Begiraleak eta Euskal Eskolak gauzatu zituzten maistra kontzienteei, errientsa herrizale haiei.

Hala nola Kapitolina Buztintze Larrondo -Uxue, 1867-, Malena Jauregiberri Erbin -Aloze, 1884-, Jule Fernandez Zabaleta -Iruñea, 1898-, Katalina Alastuei Garaikoetxea -Iruñea, 1899, Elbira Zipitria Inastortza -Donostia, 1906...



GORA EUSKAL HERRIENTSAK ! argitalpen kooperatiboa da, eta memoria historikoaren berreskurapen – ariketarako lanabes izan nahi du.



# EUSKAL HERRI EGUNA

**Apirilaren 20an**  
Baigorriko Bixentaenean

EUSKAL HERRIA Eguna, 2009an sortu zuten Ibarra eta Lizarrako eragile ezberdinek Euskal Herriko eskualde desberdinak harremanetan sartzeko helburuarekin.

Bi herriak arlo guztietan senidetu asmoz jarri ziren martxan bi herriak, taldeak, elkarteak, kinol taldeak, dantza taldeak, ikastolak, udalak...

Pixkanaka-pixkanaka Euskal Herriko probintzia bakoitzetik herri bati proiektuari lotzea proposatua izan zitzaion (Algorta (Bizkaia), Ibarra (Gipuzkoa), Agunain (Araba), Lizarna (Nafarroa), Baigorri (Baxe Nafarroa) bai eta ere Itsasu (Lapurdi)).

Elkar ezagutzatik hasi eta, laguntasuna eraikiz, ideiak trukatzuz, proiektuak sortuz egiazko sare bat osatu da EH egunaren parte diren herrietako elkarte, pertsona edo taldeen artean.

Urte guzti horietan, besta egunak, mendi ateraldiak edo ateraldi desberdinen aitzakipean elkartu gina.

Basaizeak Euskal Herriaren arteko harremanak bultzatzea duenez xede, Kulturaldian egun benezi bat antolatzea enabaki dugu. Euskal Herria eguna osatzen duten herriei harremanetzeko egun polit batera gonbidapena luzatuz. Aurten bi herri gehiago proiektuari lotuko zaizkigu: Sara (Lapurdi) eta Maule (Xiberoa).

**EH EGUNA**  
Euskal herriak saretuz Euskal Herria eraiki

**Apirilaren 20an**  
**Baigorri Bixentaenean**



**12:30 KANTU BAZKARIA**  
Izenak eman (0033687117255)

**18:30 GAZTELONDON ZER BERRI**

**21:30 PANGEA POP**

**23:00 POTOTA FREKKO**  
eta  
**FLAZIDO FONKI DJ-AK**







## EGITARAUA

---

**12:30** . KANTU BAZKARIA (BAIGORRIKO IKASTOLAK PRESTATURIK).  
IZENAK EMAN (0033)687117255


**18:30** . GAZTELONDON ZER BERRI

ETXAHUN BARKOXEREN INGURUAN DABILEN IKUSGARRI BERRIA, PIERRE  
TOPET ETXAHUNEN KANTUEN ETA BIZIAREN GIROAN SARTZEN DENA.  
SOINUZ, MUSIKAZ ETA KANTUAZ, XIX. MENDEKO INGURUMENEAN  
SARTUKO GARA, ORDUKO ARAUDI SOZIAL ETA MORALARI PARATUZ.

- MIXEL ETXEKOPAR: MUSIKA, KANTUA
- DOMINIKA REKALT: TESTUA, BOTZA, MUSIKA
- PIERRE VISSLER: SOINU GRABAKETAK, MUSIKA
- JEAN-CHRISTIAN GALTXETABURU: ESKU SOINUA, PERKUSIOA

**21:30** . PANGEA POP

**23:00** . POTOTA FREXKO ETA FLAZIDO FONKI DJ-AK



# AI GURE JUANETEA!

## ANTZERKI MUSIKATUA

**Apirilaren 27an . 20:30**  
Baigorriko Biletxean . 15€

---

### EGILEA

Patxo Telleria

### AKTOREA

Patxo Telleria

### MUSIKARIAK

Adrián García de los Ojos y Mainer Lopez

---

“Ai Gure Juaneteak!” ikuskari eszeniko hibrido da. Hitzak eta musikak osaturikoa. Taula gainean aktore-musikari bat eta bi musikari-aktore. Hitzaren eremua aktorearena da, esatariarena. Baina aktorea ere musikari bihurtzen da tarteka. Musikaren eremua musikariarena da. Baina musikariak ere ikuskizunaren parte dira, eta honenbestez, aktoreak.

---

Testua, Laboaren zenbait kantaren letren berrinterpretazio erabatekoa da, gaur egungo ikuspuntutik. “Hegazti errariak”, “Izarren hautsa”, “Bedeinkatua”, “Negu Hurbila”, “Lili bat”, “Oi Pello Pello”, “Haika Mutil”, “Baga biga higa”, “Ihes beta”...

“Hamarkadak pasa dira kanta horiek konposatu zirenetik eta ez dute galdu orduko indarra eta zirrara. Eta horrexegatik, gure ondare emozionalaren ezinbesteko zatia dielako, izan dut kantok berregituratzeko, berkodifikatzeko ausardia. Gureak dielako. Nireak dielako.”

---





# MEJILLON TIGRE, HITZ ESANA

Maiatzaren 1an . 18:30  
Elgenian, Arrosan.

## EGILEA

Eider PEREZ & Ane GARCIA

Spoken word formatua darabilen poesia-emanaldia da HITZ ESANA. Zer da spoken word delakoa? Batez ere ingeles hiztunak diren herrialdeetan landutako poesia-molde konkretu bat: ahoz gora esateko idatzitako poesia; errepikari, erritmoari eta hitzen soinuari arreta berezia ematen dion poesia; entzulearekin zuzen-zuzenean komunikatu nahi duen poesia; gorputzaz ahazten ez den poesia; esan egiten den poesia; momentuan gertatzen den poesia.

Molde hori oinarritzat hartuta, Mejillon Tigre kolektiboak HITZ ESANA emanaldia osatu du: bi gorputz, 15 bat pieza indibidual, eta poesia emanalditik baino kontzertutik gertuago egon nahi duen formatua. Esateko ez baita gauza handirik behar: jasotako guztiarekin eta horren kontra aritzea. Zeharkatzen gaituzten bizipenak piezen muinean kokatzea: etxebizitza, sexu-indarkeria, gorpuztasuna, idoloak, erreferenteak. Hitz soilak eta, noizbehinka, musika nahasian, esandakoa eta beste guztia ere hel dakion entzuleari.



# MEJILLON TIGRE

HITZ ESANA

# NAFA RROAREN eguna



2024.04.28  
BAIGORRI

Goiza

GAINEKO PLAZA

**9:00** . MERKATUA GAINEKO PLAZAN

**9:00** . ASKARIA IKASTOLAN KUXKUTUREKIN

**11:00** . DESFILEA BEHEREKO PLAZATIK. ORTZADAR DANTZA TALDEA, ESKIULAKO DANTZA TALDEA ETA OTSAGABIAKO DANTZA TALDEA. MAKILARIAK. BASALDUNAK. NAFARROAKO ETA BAIGORRIKO ZIGANTEAK. TRIKITILARIAK. TXISTULARIAK. GAITEROAK. UZTARITZEKO TXARANGA, EZPELA.

**11:30** . EKITALDIA ELIZAKO PLAZAN

**12:00** . BAS'HITZA. IRRINTZINA.

**13:00** . LARRAIN DANTZA ETA JAUZIAK

**14:00** . IKASTOLAKO BAZKARIA PLAZA XOKON



---

Arratsaldea

BEHEREKO PLAZA

---

**11:30** . RAKATAPUNK ELEKTROTXARANGA

**13:30** . GAITISTANEKO ORKESTRA

**15:30** . ELEKTROTXORONGO ELEKTROTXARANGA

**17:30** . TUKUTUKU TXARANGA

HAURREN XOKOA

**14:00-19:00** . PUZGARRIAK, EGURREZKO JOKOAK, AURPEGI TINDAKETA...

**17:00** . PONTX PAILAZOA

**18:00** . ZIRKO IKUSGARRIA

FAMILIEN XOKOAN

**15:00** . BERTSO SAIO MUSIKATUA

BERTSOLARIAK: AMETS ARZALLUS, XABAT ILLARREGI, ANE LABAKA ETA  
MIREN AMURIZA

MUSIKARIAK: ENEKO SIERRA ETA BEÑAT ANTJUSTEGI

GAI-EMAILEAK: AMAIA CASTORENE ETA XALBAT ALZUGARAY

**16:30** . DANTZA IKUSGARRIA

**17:30** . KIKI BORDATXO

**20:00** . CUMBIA BERO

**22:30** . BELAKO

**00:00** . DJ UZKULUZ



» Egin **ekarpena**  
hilean soilik 10 € ordainduta

**BERRIA** babestuko duzu,  
eta astero

*Ipar Euskal Herriko Hitza*-ren  
paperezko astekaria  
jasoko duzu etxean.



[Berria.eus/babestu-berria](http://Berria.eus/babestu-berria)

**berria**  
**aldi hau** kontatzeko



# zurlan

**ZURGINTZA . MAHAXTRUGINTZA . ZUREZKO EGITURAK**  
**CHARPENTE . MENUISERIE . OSSATURE BOIS**

**SCOP ZURLAN . 64430 BAIGORRI . 05 59 37 46 75**

# CAFE DU FRONTON

**BAIGORRIKO PLAZA**

# Goicoechea

POTIER - CÉRAMISTE



Village d'artisans - Rd 918 - 64780 Ossès - Ortaize  
[www.poterie-goicoechea.com](http://www.poterie-goicoechea.com)



## TRUITE DE BANKA

— MICHEL GOICOECHEA —





**Savonnerie Artisanale**

Baigorri  
05.59.37.93.42  
www.etxeanegina.com

**SALDUMBIDE**  
Alibert Zurgina

**MENUISERIES** **CUISINES**  
Bois - Alu - PVC Agencement Intérieur

**06 78 75 73 65**  
-ZAC d'Irouleguy 64220 IROULEGUY-  
● Fabrication sur mesure ●



**IROULEGUY Arretxea**  
Familie Riouspeyrous Familla

www.domaine-arretxea.com



**TAMBOURIN**  
Aire casera  
Fromage  
pur lèrtas  
ossau-iraty  
Bretat

**Ferme Enautenea**

Michel et Guillaume Tambourin  
64430 Saint-Etienne-de-Baigorri

Tél. 06 32 34 26 99  
tambourin3@wanadoo.fr  
www.fromagetambourin.fr

**ARNABAR**

Eleveurs de Canards au Pays Basque

www.arnabar-foie-gras.com

64430 Banca  
Tél : 05 59 37 40 37  
hotel@erreguina.com

**ERREGUINA**  
HOTEL RESTAURANT



Sanitaire | Chauffage | Zinguerie

**CURUTCHARRY**

BAIGORRI 06 75 57 49 58

**HARRIBELTZ**

Daniel et Julien MOCHO  
Producteurs de Foie Gras pur lèrtas  
LUSIGNEA SAINT-BASQUE - GEMPEA  
Port: 06 84 72 44 75 - www.gic-mochobamberra.com



**Zura Lagun**  
CRÉATIONS ORIGINALES EN BOIS  
BAIGORRI



**DOMAINE ORONOZIA**  
ATERPETXEA | GÎTE DE GROUPES

64430 BAIGORRI 05 59 37 42 03  
www.domaine-oronozia.com

Forme & BAIGORRI

**AGERRIA**

**Foie Gras**  
Spécialités Basques

**05 59 37 41 06**

BAR BRASSERIE

**TH**  
HERBERIA

BAIGORRI

**TRASTORZA**

PÂTISSERIES & VIENNOISERIES

BOULANGERIE

64430 St-Etienne de Baigorri  
05 59 37 40 06 / 06 30 50 91 78



**DOMAINE ILARRIA**

Foie Egail  
Bourg 64220 Irouleguy  
05 59 37 23 38

AN ETAIN JIN ETAIN ETAIN

**BEREKO BENTA**



**GANEKOVENTEA IZPEGI**

**FRANSES ITZULPENA**

antton.bank@wanadoo.fr  
06 85 38 45 33  
**TRADUCTION BASQUE**

**GARAGE OÇAFRAIN**  
Lieu dit Axarrieta  
64220 IROULEGUY

**CITROËN** **JOHN DEERE**



**Mamiño**  
Fuitu goxokiak  
Saharats Etxiburu  
Alaxta 64430 - Aldude  
Tel. 05 59 37 56 02



**FERME Belarrea ETXALDEA**  
BAIGORRI

www.porc-manex.com

**KOSEINIA**  
*Ernaga*  
64430 UREPELE



**Garage SEMERENA**  
PEUGEOT BAIGORRI  
05 59 37 42 69

Sur RDV au 06.85.15.39.88  
Baigorri

**Gypsy**  
Esthétique & Spa  
Un moment d'évasion au naturel



**SALTEGIA**  
**Maite GARATEA**

**64430 ALDUDE**  
**05 59 37 56 78**



**ETXEÑAK**

**PRODUCTEURS FERMERS DE LA VALLÉE DES ALDUES**



Yvonne et Michel OÇAFRAIN  
GAEIC Iroin - 64430 BANCA  
Tél. : 05 59 37 43 51  
Fax. : 05 59 37 46 84

**SPAR** **ETS OIBAROS**

Supermarché Granules de bois  
Bois de chauffage Palettisé

Lundi au dimanche matin  
Place de l'Église Baigorri  
L'ouverture à dimanche 7-7

05 59 37 40 34  
ORONOS.FR



**BRĀNĀ**  
Vigneron - Distillateur Basque

**DEN·BEZALA**  
GITES & OSTATUA



**KATTAKLIN**

Garbiketaren erregin !!!

KATTAKLIN

**ARGI EGIN**

- Elektrika  
Electricité
- Aire Egokitua  
Climatisation
- Bero ponpa  
Pompe à chaleur
- Eguzkikoak  
Solaire

Tél/Fax : 05 59 37 47 25



Gexan

**ALFARO**  
tindatzaile

06 84 26 86 47

05 59 37 40 84

BAIGORRI



**BERECIARTUA**

QUARTIER EIHERALDE

**BAIGORRI**

05 59 37 91 00

[www.bereciartua.batiland.fr](http://www.bereciartua.batiland.fr)

Chocolaterie

**Laia**  
Txokolategia



les Mousquetaires

**Intermarché**  
contact

ST ETIENNE DE BAIGORRI

Station-service 24h/24 + Drive

• Laverie automatique 24h/24



Hôtel\*\* Restaurant  
**manexenea**

05 59 37 41 68

[hotel-manaxenea@orange.fr](mailto:hotel-manaxenea@orange.fr)

[www.manexenea.com](http://www.manexenea.com)

**Alfaro**  
OSTATUA



JATETXEA  
JOKO BERRI

Ouvert 7/7 Idekia  
**ALDUDE**



**Pizza**  
**Pausa**

**BAIGORRI**

05 59 37 25 44

18H-21H

Jasotri à Dimanche  
Ostegunetik Igandera



**Irulegiko Sotoa**

LA CAVE  
D'IROULEGUY

**Mahastizain**  
**Kooperatzaileak**



**MENTA**  
FERME AUBERGE  
—RESTAURANT / ALDUDE—

[www.ferme-auberge-menta.com](http://www.ferme-auberge-menta.com)



**GARAGE IREY**  
AGENT RENAULT DACIA

0559374771 - BAIGORRI



**FLORENCE ETCHENIQUE**  
Bankako bidea - Baigorri  
05 59 49 01 46



**VENTA CHEZ PEIO**  
**IRIGOIENEKO**

BAR - RESTAURANT - TABAC - MAGASIN

0034 948 45 32 14 - Col d'Ispeguy 31714 Erratzu



**E.Leclerc**  
**EXPRESS OSSES**

05 59 49 21 24 - Ortzaize



**FERME OHETA**

BEHI GASNA

SYLVIE ET JEAN MICHEL BRUST

64780 ARROSA

05 59 37 74 58

[www.kaikuborda.eus](http://www.kaikuborda.eus)



Magasin de producteurs fermiers  
ETXE EKOIZPENAK  
ORTZAIZE

**Eskualduna**

Hôtel  
Restaurant

Chez Katina



**MAKUR**

MÉTAL

**CLAAS**


TRACTEURS  
MACHINES AGRICOLES

**MBB-ADOUR**

**BAIGORRI**  
09 85 60 61



Ortzaize / Ossès  
[www.hatsa-sport.com](http://www.hatsa-sport.com)



**BASAIZEA**

Kultur Batasuna

# BAIGORRIN ERE ERASORIK EZ!

Nafarroaren eguna denontzat leku segurua izaita nahi dugu. Edozein eraso mota ez dugu onartuko. Izan dadin, eraso fisiko ala moralak, behar diren baliabideak ezarriak izanen dira horien saihesteko eta zerbait gertatzen baledi, berehalako neurriak hartuak izanen dira eraso huni erantzuteko. Jaz gertatutakoa berriz ere salatzen dugu eta ez dugu nahi aurten ere, holako gertakari batek egun hunen dirdira ilundu dezan. Bestalde, aurten, arreta berezia finkatuko dugu besteen drogatzea fenomeno huni, ez dugu onartzen pertsona batzuek bestazaleen drogatzea, azken horien ezjakintasunarekin eta maiz delarik, erasotzailearen gogo sexualen errexkiago hasetzeko.

Denen ardura da Nafarroaren eguna, egun pollita eta denen errespetuan izan dadin! Gora nafarroaren eguna!

GORA  
NAFARROAREN  
eguna

BASAZEA  
Kultur Batasuna